

AMA BIRJIÑA ERROSARIOKOARI



Koroi eder bat, Ama nerea,
Zuri, larrosaz egiña,
Eskeñi naian nator, banazu
Artzen artarako diña;
Nik aldedana oso guchi da,
Baña balitz nai adiña,
Egingo nuke, edertasunez,
Zerua beziñ apaiña.

Jesusek berak erakutsirik
Dakigu Aita-Guria,
Aingeru batek ekarrizuen
Zerutik Agur-Maria;
Zeruan berriz kantatzen daude
Jaungoikoari gloria,
Oiekin dizut egin nai Ama
Alik ederren koroia.

Aita-Gure bat esan ondoren
Berriz amar Agur-Mari,
Azken emanaz, gero gloria
Beiñ, amarreko danari;
Errosario bat egiteko
Badegu gaia ugari,
Baña nai zaitut, Ama maitea,
Aurretikan zu giari.

Amarrekoak amabost ditu
Errosario osuak,
Gogoratutzen dizkigutela
Ama-seeen pausuak,
Baldin biotza alaitzen badu
Larrosen usai gozuak
¿Zer egingo du Errosario
Santuaren errezuak?

Jainkoa gizon egin zanian
Zure sabel chit garbian,
Bisitatzera zoaz Isabel
Urrengo egun batian,
Estalpe zarcho baten jaiorik
Jesus gabaren erdian,
Laguntz aundirik zuretzat etzan
Arkitu Belen aldian.

Jesus jaio ta ondorenean
Egun batzuen buruan,
Pekatarien antzera zaude
Jerusalengo tenpluan;
Andik amabi urtera berriz
Semea gaidu-onduan,
Iru egunen buruan tenplo
Artan arkitu zenduan.

Jetsemaniko baratz santuan
 Auspez lurrean jarririk,
 Erregutuzten dago, odola
 Izerdituaz larririk;
 Bost milla edo geiago azotez
 Gorputz dana idikirik,
 Lurrean ezta, au ikusita,
 Bigunduko eztan arririk.

Buruan koroi arantzazkoa
 Ta lepuan gurutzia
 Kalbariora dijoa Jesus
 Odoldurikan guzia;
 Mendi santuan gurutzeari
 Iltze gogorraz josia
 Ikusten degu eman duela
 Jesus maiteak bizia.

Jesus piztuta, aingeru danak
 Baño askoz ederrago,
 Ama maitea konsolatutzen
 Semea pozik an dago;
 Berrogeigarren egunian da
 Lurretik zerura igo,
 Laguntzat ditu aingeru eta
 Justu zeudenak katibo.

Espiritu Santuak zuela
 Bere argia ekarri,
 Apostoluen adimentuak
 Ipiñi zituen argi;
 Ama zerura eramatera
 Jesus bera zan etorri
 Ara igota koroi chit eder
 Bat zion buruan jarri.

Aita-Gure ta Abe-Mariak
 Mingañarekin esanaz
 Misterioak pentsatzen goaz
 Aldan modurik onenaz,
 Poztuaz zure atsegiñaz ta
 Errukiz zedorren penaz
 Begira Ama gurea nola
 Maitatzen zaitugun benaz.

Ikusten badet begiraturik
 Zeruan dezun jargoia,
 Ezer-eza da zuri eskeintzen
 Dizudan nere koroia;
 Zuk badakizu borondatia
 Dedala eziñ obia;
 Indazu arren zure grazia
 Eta zeruko gloria.

P. M.

1898-ko Iraillaren 26-an.

